## El ballet y la orquesta de Brno ofrecen hoy 'Raymonda' en el Victoria Eugenia

:: DV

SAN SEBASTIÁN. A punto de celebrar su centenario, el Ballet del Teatro Nacional de Brno llega a San Sebastián para llevar al escenario del teatro Victoria Eugenia la obra 'Raymonda', junto a la Orquesta del Teatro Nacional de Brno. La representación, comenzará a las 20.00 horas, con el aforo prácticamente agotado.

El ballet 'Raymonda', con música de Alexander Glazunov, es una de las obras que cimentaron la carrera de grandes bailarines. En la versión que se ofreció en Moscú en 1945, Maya Plisetskaia bailó el papel de Raymonda. Y Rudolf Nureyev, que bailó varias veces como Jean de Brienne, contribuyó enormemente a la difusión de este ballet, que fue su título de presentación como director del Ballet de la Ópera de París.

El Ballet del Teatro Nacional de Brno es, junto al de Praga, el más importante de la República Checa. Ha realizado más de 140 representaciones en el extranjero. Su repertorio incluye 'El lago de los cisnes', 'Cascanueces', 'Don Quijote', 'Giselle', 'Nôtre Dame de París', entre otros muchos títulos.

# Argindarrik gabeko munduari buruzko albuma

Yolanda Arrieta eta Leire Urbeltzek 'Itzalpetik' album poetiko-futurista burutu dute

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. 'Itzalpetik' izeneko albuma plazaratu du Erein etxeak. Atzokoa izan zen datorren ostiraleko Liburu Egunari begira egiten den lehenbiziko aurkezpena, eta Harkaitz Cano –idazle gonbidatuaera honetara mintzatu zen: «Nik uste dut giza harreman beroago batzuen aldeko aldarrikapena dela liburua».

Hau da albumaren abiapuntua: gaur ez da argirik sortu Ilunargi izeneko planetan, eta bioteknikariek emergentziako argi erraldoiak piztu dituztenez, hiriko indar guztia xurgatu dute. Ondorioz, telebista, telefono, ordenagailu eta beste tresnak amatatzen joan dira.

«Beti da zaila lau esku batera jardutea, lan egitea –jarraitu zuen Harkaitz Canok–. Gidoigintzaz ematen diren ikastaroetan, hau izaten da beti lehen irakaspena: irudiek eta hitzek ez dutela gauza bera esan behar. Lengoaia batek eta besteak gauza desberdinak esaten dituztenean, askoz hobeto. Idazleak eta marrazkilariak, biek ala biek igo behar dute eskailera, baina ez batera, eta azkenean ahaztu egin behar da zein izan zen lehen maila igo zuena».

Editoreak, Erein etxeko Iñaki Aldekoak, hau erantsi zuen: «Gure artean baldar jokatzen dugu. Liburu batean ilustrazioak ikusi eta segituan esaten dugu: 'Hau umeentzat izango da'. Liburu hau artelan txiki bat da azken batean, baina zoritxarrez gurean ez dago albumen kultura handirik».

'Itzalpetik'-eko testuen egilea eskarmentu handikoa da. Yolanda Arrieta (Etxebarria, 1963) haurrentzako nahiz helduentzako lanak idatzi izan ditu, eta urte asko dira literatur tailerretako gidari ere hasi zela.

«Zenbat borroka egin behar den, esateko hau bion arteko lana dela esateko!», esan zuen atzokoan Arrietak, marrazkilariari begiratzen ziolarik. «Ez naiz akordatzen zein hasi zen. Gero harreman asko izan ditugu Leire eta biok, bai e-mailez bai telefonoz. Berak eraman nau ni joango ez nintzatekeen lurraldeetara».

Leire Urbeltz Arte Ederrak ikasitakoa da eta Iruñean bizi da. «Nire ustez, albumaren mezu nagusia da ingurunearekiko errespetuz jokatu behar dugula», esan zuen atzo.



**Lankideak.** Yolanda Arrieta eta Leire Urbeltz, atzo. :: LUSA

### DATUAK

**Izenburua:** 'Itzalpetik'.
**Egileak:** Yolanda Arrieta eta Leire Urbeltz.
**Argitaletxea:** Erein.
**Salneurria:** 17 €


GRAN ENCICLOPEDIA del PERRO

La enciclopedia visual más completa con la que podrás disfrutar, conocer y comprender al mejor amigo del hombre.

PROMOCIÓN VÁLIDA SÓLO PARA GIPUZKOA Y ZONA DE BIDASOA BAZTÁN. HASTA AGOTAR EXISTENCIAS

INFORMACIÓN ACTUALIZADA
-
ESCRITA POR ESPECIALISTAS
-
FOTOGRAFÍAS ESPECTACULARES







- Presentación detallada de todas las razas: información ágil y actualizada.
- Más de 4.000 fotografías espectaculares con todo lujo de detalles.
- Todo sobre nutrición, salud, cuidados y comportamiento.

EL DIARIO VASCO

SI TIENES CONTRATADA TU SUSCRIPCIÓN CON NOSOTROS, PODRÁS ADQUIRIR CADA UNA DE LAS ENTREGAS EN NUESTRA OFICINA DE SANTA CATALINA 1 DE SAN SEBASTIÁN O EN TU PUNTO DE VENTA HABITUAL